

PILOTALEKUAK ERABILTZEKO ARAUAK

77. artikulua.—Deskribapena

Frontenis eta Euskal Pilotaren modalitate guztietan aritzera bideratutako kirol-instalazioak dira.

78. artikulua.—Sarrera

Kiroldegietara harpidedun txartela edo erabiltzaile kirolariaren txartela aurkeztuz sartuko da, eta sarrerako kontrolean kasu bakoitzean dagokion alokairu-tasa ordainduta, zabalik dagoan udal frontoian izan ezik, sarrera librea izango dalako.

79. artikulua.—Araudi berezia

- a) Pilotalekuetako jokalekuetan soilik kirol oinetako eta arropatan sartu ahal izango da; debekatuta dago gomazko zola gabeko oinezkoak erabiltzea.
- b) Erabiltzaileek egin litzaketen zigorrak alde batera utzita, pilotalekuetako jokalekuetako material eta ekipamenduen erabilera desegokia arduradunak zigortzeko gai izango da, gutxienez eragindako kalteak ordaintzeko eskatuz.
- c) Pilotalekuak gehienez ere bi orduz (2) erreserbatuko dira.
- d) Pilota-modalitateetan jokatu ahal izateko, tasa bat ordaindu beharko da alokairu-kontzeptuan eta beste tasa bat argiarengatik, hori eskatzen bada.
- e) Nahitaezkoa da pala, zesta-punta edota erremonteko modalitateetan aritzen diren erabiltzaile guztiek kaskoa erabiltzea.
- f) Laguntzaileek instalazioko harmailetan gelditu beharko dute, eta ezin izango dira aldageletan edo jokalekuan sartu.
- g) Pilotalekua kiroldegia baldin bada, Pilotalekutarako Araudia aplikatu beharko zaio frontenis edota euskal pilotako edozein modalitatetan aritzerakoan. Gainerakoetan Kiroldegien Araudia aplikatuko zaie.